

“Edertasuna bilatzeari esker aurkitu nuen fede katolikoa”

Etsuro Sotoo eskultore
japoniarrak, Erroman, Ikasle
Unibertsitarien Nazioarteko
Topaketara (UNIV)
bertaratutako gazteei azaldu
zien, nola Jainkoa aurkitu zuen
edertasunaren eta
arkitekturaren bidez.

2012 Eka 25

Gaudium Press agentziak informatu zuenez, artista honek, Bartzelonako Familia Santuaren ordainezko Templuaren diseinuaren eta eraikuntzaren arduradunak, Jainkoaren Serbitzari Antonio Gaudiren pentsamenduan sakondu nahi izan zuen, bere obra aurrera eramatearren.

Orduan ezagutu zuen bere lanaren egiazko zentzua eta egiazko edertasuna. “Etsuro da nire izena”; ‘gizon zoriontsu’ esan nahi du eta esanahi hau bete egin da benetan: egiazko zoriontasuna oraingoa da, fedea aurkitu dudanean”, esan zuen harro.

“Gaudiren oinatzen atzetik” izenburuko hitzaldian. Sotook bere konbertsioaren bidea agertu zien ikasleei: “Hasieran, Gaudiren hitzak eta maketak sakonki ikasten nituen, baina Gaudik ez irudikatu ezta proiektatu ere ez zuen proiektu bat

egin behar nuen momentua iritsi zen”. Artista japoniarrak arkitekto espainiarraren ikuspegia ulertzen saiatzea erabaki zuen. “Gaudik begiratzen zuen lekura begiratzen saiatu nintzen”. Horretarako, Gaudi zegoen lekuan egon behar nuen, baina, non zegoen Gaudi? Gaudi fedearen munduan zegoen. Horregatik egoki iruditzen zitzaidan fede horren munduan sartzea, hobeto ezagutzeko, edota emandako lana egin ahal izateko”.

Fede katolikoa aurkitzeak, Jainkoaren Serbitzariaren pentsamendutik abiatuta, artistaren itxaropen guztiak bete zituen: “Momentu hartatik zeharo aldatu zen nire bizitza. Hitz guztiak ulertu nituen, ez erabat ongi, ordea, nik bilatzen nuen ur garbia bezala” esan zuen Sotook.

Konbertsioak ulertarazi zion ere artistaren bokazioan Antoni Gaudik

ikusten zuen sakontasun espirituala. Artista japoniarrak Jainkoaren Serbitzariaren esaldi ezagun hau hausnartu zuen: “Egiaren argiaren distira da artea; Egiarik gabe ez dago arterik”. Hausnarketa horren ondorioek bere ekintza beste modu batez ikustera eramane zuten. “Hargin bat baizik ez naiz, baina artea bilatzen ari naiz”, esan zuen Sotook. “Egia bilatzea oso zaila da, ez da beti lortzen. Beraz, nire ustez, ez dago artista-lanbiderik. Artea bilatzen duena bakarrik, egiaren argiaren distira den artea, huraxe da, agian, artistarengandik hurbilen aurkitzen den pertsona”.

Jainkoaren Serbitzari eta arkitekto katalan famatua den Antonio Gaudik bere bizitzako azken hamaika urteak eman zituen Familia Santuaren ordainezko Tenplua, “Pobreen Katedrala” berak zioen bezala, eraikitzen. Xumeki eta estutasunean bizi izan zen, eskaletzat hartua

izateraino heriotza erakarri zion
zoritxarreko bide-istripuan.

Jainkoaren Serbitzariak egunero
parte hartzen zuen Eukaristian eta
etengabeko jaiera bizitza zerman.
Bere obra batzuk, horien artean
Familia Santuaren absidea
Gizadiaren Ondaretzat jo zituen
UNESCOk

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
edertasuna-bilatzeari-esker-aurkitu-
nuen-fede-katolikoa/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/edertasuna-bilatzeari-esker-aurkitu-nuen-fede-katolikoa/) (2025 Abu 12)